

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

INEGOTZIAK : 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA

2.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

3.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

4.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

5.- NAIARA ESNAL HUEGUN

6.- ANTXON GOMEZ LORENTE

7.- JOXEMARI LIZARRALDE

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko udalbatzaren Akta onartu : 2007ko azaroaren 7ko Akta onartu du aho batez Udalbatzak.

2.- 2008 urterako aurrekontu bateratuari hasierako onarpena eman (Udala zein Aia Lantzen S.A.-renari), Lanpostu zerrenda eta plantilla organikoa barne.

Alkateak Udalaren aurrekontu propioaren berri eman du, lehenik. Honela, sarrerak 2.554.240,61.-eurokoak aurrikusi direla aipatu du, modu honetan sailkatuak, labur-labur :

- 1 kapitulua: zerga zuzenak (ondasu higiezin,ibilgailu,ekonomi jarduera,hirilur balio handitzea): 445.600.-euro
- 2. kapitulua: zeharkako zergak (eraikuntza eta obra zerga): 200.000.-euro
- 3. kapitulua: tasak (lurzoru zein instalazio publikoak erabiltzeagatik eta zerbitzuak eskaintzeagatik): 268.162.-euro
- 4. kapitulua: transferenzi arruntak (Foru Aldundi zein Eusko Jaurlaritzako diru ekarpen orokorrak): 1.326.410.-euro.
- 5. kapitulua: ondare sarrerak (alokairu errentak,igerileku ustiaketa, banku interesak): 15.500.-euro.
- 6. kapitulua: inbertsio errealak besterentzea (hirigintza %10eko lagapena,Mataderi zaharra): 6.001.-euro
- 7. kapitulua: kapital trasferentziak (Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritz zein Urkome-Mendikoi diru ekarpenak proiektu zehatzetarako): 212.001.-euro
- 8. kapitulua: finantza aktiboak(pertsonal aurrerakinak, diruzaintza-ondarrak): 2.-euro
- 9.kapitulua: finantza pasiboak (epe luzeko mailegua): 80.564,61.-euro

Jarraian, aurreko 2.554.240,61.-euroak zein gastuak gauzatzeko erabiltzea aurrakusi den laburbildu du, ondoren jaso den gisara:

- 1. kapitulua: pertsonal funtzionari zein langileria gastuak: 690.760,08.-euro.
- 2. kapitulua: eraikin zein makinaria mantenu-gastuak : 603.878,20.-euro.
- 3. kapitulua: finantza gastuak (mailegu interesak): 0.-euro
- 4. kapitulua: transferentzi arruntak (erakunde zein partikularrentzako diru laguntzak, besteak beste, Mankomunitate,Eudel, Udalbide,Kooperazio-Elan,eskolak, Goiz-Argi, jai batzordea,kirol elkarteak, famili laguntzak, euskara sustatzeileei, turismo ekintzetarako): 379.394,33.-euro
- 6. kapitulua: inbertsioak(tele alarmak, eskola berritzeak, kale txukunketa, urbanizazio drenajea, espaloia eraikitzea, haur parkea, gas azpiegitura eraikitzea,ur azpiegitura auzoentzat,baserri bideak konpondu eta seinalizatu,hilerrri zein igerileku konponketa, liburutegi fondoa, perretxiko liburua,besteak beste): 880.206.-euro
- 7. kapitulua: kapital transferentziak (ondasun salmentak , Mataderi etxea):2,00.-euro
- 9. kapitulua: finantza pasiboak (mailegu amortizazioa): 0.-euro

Bestalde, Aia Lantzen S.A.-k proposatutako aurrekontua ere izan du aztergai eta horri buruz honako atalak azpimarratu ditu nagusiki. Sarrerak, 1.536.968.-eurokoak, honako iturrietarik eskuratuko direla azaldu du:

- 6. kapitulua: inbertsio errealen besterentzea (Armendi-Gain eta Amets-Gain lursail salmenta, Santio etxe zein garaje salmenta, Armendi-Gain garaje eta trasteleku salmenta): 1.355.664.-euro
- 7. kapitulua: kapital transferentzia (udalaren diru ekarpena Mataderi-Etxea saltzearen ondorioz):0,00.-euro
- 8 kapitulua: finantza aktiboa (diruzaintzan dagoen kopurua): 181.304.-euro.

Gastuak bestalde honela banatuko direla gogorarazi du:

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzu gastuak (eraikin zein makinaria gastuak eta zerbitzuagatik funtzionamendu gastuak, Armendi-Gain eraikin komertzial proiektu idazketa eta obra zuzendaritza): 85.771,00.-euro.
- 6. kapitulua: inbertsio errealak (Armendi-Gain urbanizazioa, Santio etxeen kostuaren %80, Armendi-Gain eraikin komertziala eraiki,brigada lokala eraiki, Auzokalte lursail erosketa): 1.315.927.-euro
- 8. kapitulua: finantza aktiboa: 135.270.-euro

Lanpostu Zerrenda eta plantilla organikoa aurrekontuarekin batera aurkeztu ditu azkenik Idazkariak, jarraian ageri bezala:

LANPOSTU ZERRENDA: FUNTZIONARIAK

Izena Nombre	Taldea Grupo	Lanp Kop. Nº puest.	Horni. era Forma prov.	Dedikazopa Dedicación	Titulazioa Titulación	Hiz. Esk Perf. ling.	Der. Data F. Precept.	Ta/Esk Gr/Esc	Maila Nivel	ARCP. Maila	Azpieskala Subescala
Idazkari-Kontuhartzailea	A	1	K	%100	LU	4	97-07-30	GN	21	21	I-K
Secretario-Interventor		1	C	100%	LU	4	30-07-97	HN		21	SI
Administrazio Orokorreko laguntzailea	C	1	KO	%100	LH-1	3	93-12-31	AO	14	14	AL
Auxiliar de Administración General		1	CO	%100	FP-1	3	31-12-93	AG			AA
Administrari Laguntzailea	C	1	PM	%100	LH-1	3	93-12-31	AO	14	10	AL
Auxiliar Administrativo		1	PR	%100	FP-1	3	31-12-93	AG			AA
Jakinerazlea	C	1	PM	%100	LH-1	2	93-12-31	AO	14	12	ME
Notifikador-Ordenanza		1	PR	100%	FP-1	2	31-12-93	AG			SUB
Ekintza anitzetarako Ofiziala	D	1	PM	%100	LH-1	2	93-12-31	AB	12	12	ZB
Oficial de Servicios Múltiples		1	PR	100%	FP-1	2	31-12-93	AE			SE
Ekintza anitzetako Ofiziala Lurperatzailea	D	1	K-O	%100	EZ	2	98-12-23	AB	12	12	ZB
Oficial de Servicios Múltiples		1	C-O	100%	CE	2	23-12-98	AE			SE
Operari	E	1	K-O	%100	EZ	1	99-03-31	AB	8	8	ZB
Operario		1	C-O	100%	CE	1	31-03-99	AE			SE

LAN POS TU ZER REN DA: LAN KON TRA	Izena Nombre	Lanp. mota Tipo puesto	Lanp Kop. Nº puest.	Horni. era Forma prov.	Dedikazopa Dedicación	Titulazioa Titulación	Hiz. Esk Perf. ling.	Der. Data F. Precept.	Taldea Grupo	Maila Nivel	Azpieskala Subescala
	Garbitzaileak	E	3	K-O	1-%100 2-%51	EZ	1	93-12-31	AB	6	AL
	Limpiadoras		3	C-O	3-%19	CE	1	31-12-93	AE		AL
	Etxez etxeko laguntzaileak	E	4	K-O	2-%50 1- % 100	EZ	2	93-12-31	AB	7	EZ
	Auxiliares domiciliarias			C-O		CE	2	31-12-93	AE		CE

TUDUN BEHARGINAK

Liburutegiko laguntzailea	D	1	K-O -PM	%100	LH-1	3	96-10-15	AB	11	AL
Auxiliar de Biblioteca		1	C-O.PR	100%	FP-1	3	15-10-96	AE		AL
Aparejadorea	B	1	K-O-PM	%100	AT	3	98-10-28	AB	17	
Aparejador		1	C-O-PR	100%	AT	3	28-10-98	AE		
Ekintza anitzetako Operari: lorenzaintza	E	1	K-O-PM	%100	EZ	1	99-03-31	AB	8	ZB
Operarioñ de servicios multiples: jardineria		1	C-O-PR	100%	CE	1	31-03-99	AE		SE
Gizarte Laguntzailea	B	1	K-O-PM	100%	U.D.	2		AB	17	ET
Trabajadora Social	B	1	C-O-PR	100%	D.U.	2		AE		TM

2008.URTEKO PLANTILA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIAK

LANPOSTUA	LANPOSTU KOPURUA	TALDEA	EGOERA
IZAERAKO NAZIONALEKO HABILITAZIO ESKALA Idazkaritza Azpieskala <i>Idazkari-Kontuhartzailea</i>	1	A	J
ADMINISTRARITZA OROKORREKO ESKALA Administrari Azpieskala <i>Administrari Laguntzaileak</i>	2	C	J
Menpeko azpieskala <i>Ordenantza jakinerazlea</i>	1	C	J
ADMINISTRARITZA BEREZIKO ESKALA Zerbitzu berezien azpieskala <i>Zerbitzu anitzetako Peoia. Urak</i>	1	D	J
<i>Zerbitzu anitzetako Peoia-Lurperatzailea</i>	1	D	J
<i>Operaria</i>	1	E	J

LAN KONTRATUDUN BEHARGINAK

LANPOSTUA	LANPOSTU KOPURUA	LANBIDE	ASIMI. TALDEA	EGOERA
Gizarte-laguntzailea	1	2	B	F
Liburutegiko laguntzailea	1	7	D	J
Ekintza anitzetako Peoia: jardineritza	1	7	E	F
Garbitzaileak	3	10	E	F
Etkez-etxeko laguntzaileak	4	8	E	F
Aparejadorea	1	2	B	J

J = Jabetza F= Finkoa
 H = Hutsik A = Aldi baterako

Idazkariak gaineratu duenez, izapidetzari dagokionez, bai hasierako onarpen akordioa bai espedientea jendaurrean egongo dira 15 lan-egunez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri eta biharamunaz geroztik, Udal bulegoetan, jarraian adierazitako baldintzetan. Alegia:

- a) *Erreklamazioa aurkezteko legitimazioa izango dutela* 21/2003 Foru Arauak 17. artikuluan aipatutakoek .
- b) *Erreklamazioak aurkezteko lekua* Udaletxeko Erregistroa eta 30/92 legeko 38 artikulua jasotako tokiak izango direla
- d)*Aurkatzeko arrazoiak* 21/2003 Foru Arauak 17. 2 artikuluan araututakoak izango dira.
- e)Erreklamazioak Udal Batzarrari zuzendu behar zaizkiola.

Informazio publiko aldia igaro ondoren, erreklamazio ezean, hasierako onarpen akordioa behin-betikotzat jo eta ondorioz, Aurrekontu bateratu hau behin betiko onartua izan dela ulertuko da, beste erabaki espresurik hartu beharrik gabe. Eta Aurrekontu bateratu honen zein lanpostu zerrendaren laburpena Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira azkenik. Guzti hau Udal Aurrekontuen 21/2003 Foru Arauak – abenduaren 19koak-xedatutakoari jarraituz.

BOZKETA: Alde: 6; aurka: 0; abstentzioa: 3. Antxon Gomez zinegotziak adierazi du ezin dutela aurrekontu honen alde eman bozka, izan ere, Ordenantza fiskalen aldaketarekin bat ez zetozenez, koherentziaz, ezin baitute Ordenantza haietan jasotako diru sarrereren ondorio den aurrekontua onartu ere. Zenbait partidaren aurka daudela zehaztu nahi izan du gainera, baina partidaz partida bozketa egiteak luzeegi joko lukeela iritzita eta egokiago izango delakoan, erabaki dutela aurrekontu osoaren aurrean abstentzioa adieraztea.

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, onartu du 2008 urterako Aurrekontu Bateratuari hasierako onarpena ematea, hots, Udalaren aurrekontu propioari ezezik Aia Lantzen S.A.-renari, Lanpostu zerrenda eta plantilla organikoa barne.

3.- Aiako Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantzaren aldaketa, 11. artikuluari dagokionez

Alkateak adierazi du egoki derizkiola 2007ko uztailaren 30ean argitaratutako Aiako Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantzaren 11 artikuluko 3. eta 4. paragrafoak aldatzeari. Hain zuzen ere, salmentaren prezioa jarraian adierazitako formulari jarraituz kalkulatzeko zuzenagoa bait litzateke: Eusko Jaurlaritzak babestutako etxebizitzentzat ezarritako modulu-balioa bider behin betiko tasazio-kalifikazio indizea.

BOZKETA: Alde: 9

AKORDIOA: Udalbatzak, ahobatez, onartu du Aiako Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantzaren 11 artikulua aldatzea.

4.- Auto taxi tarifa igoera

Alkateak adierazi du Mankomunitatetik negoziatu direla tarifa hauek. Orohar, zinegotzien ustez, proposatutako igoera gehiezkoa da eta ez da argi ikusi zein de arrazoia. Antxon Gomez zinegotzietatik, zehazki, garraio publikoaren aldeko aldarrikapena egin du. Horregatik, azalpen sakonagoak eskatzea erabaki dute.

5.- Galderak eta eskaerak

Ez dago.

Bilera 19:10tan bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2008ko urtarrilaren 30ean.

IGOR ITURAIN IBARGUREN

MARIA JESUS ARRUABARRENA

JOXEMARI LIZARRALDE

ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

ANTXON GOMEZ LORENTE

MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

NAIARA ESNAL HUEGUN

Itziar Azurtza-Sorrondegik,
Idazkari-kontuhartzaileak.